

Paris 8 Unibertsitateko Psikoanalisi Departamentuaren "Psikoanalisi eta estetika" mintegiko zuzendari den Gérard Wacjmanek 2003ko azaroaren 20an, Artelekun, (a-J) artea eta jakintza mintegiaren barruan eskaini zuen Ezkutuaren asmaketa hitzaldiaren laburpena.

Gérard Wacjmanek Artelekun eskaini zuen konferentziaren helburua zen bere iritziz psikoanaliaren eta artearen arteko topaleku berri bat bezala agertzen den horri buruz jardutea.

Bere hitzaldiari ekiteko, psikoanalista bisitatzeak suposatzen duena definitzen hasi zen. Azaldu zuenaren arabera, psikoanalistarengana joatea ez da beste pertsona batengana joan eta norberaren buruari buruz hitz egitea soilik. Izan ere, arimaren hondoa irekitzea eta barne-barnekoena entregatzea da. Beste inon esaten ez duguna esatea. Wacjmanen iritziz "norberaren barne-barnekoa" den hori entregatu ahal izateko, ziur jakin behar dugu gure sekretua kontsulta horretako lau pareten artean geratuko dela. "Beharrezkoa da gure zauri sekretuak azaltzen ditugun leku hori ere leku sekretu bat izatea" adierazi zuen.

Gérard Wacjmanen iritziz, bizi dugun une honetan badirudi intimitatea disimulurik gabe kanpoalderantz azaltzen dela, psikoanalistaren kontsultako paretetatik kanpo, eta antzina intimitatea babestua egoten zen lekuetatik at. Zer gertatzen da hormak erori eta intimitatea museoetatik eta alde guztietatik zabaltzen denean? Zer da intimitatearen ideiatik geratzen dena?

Arteak, berriro ere, hausnarrarazi egiten gaitu. Egungo artistek beren gorputza, beren pentsamenduak eta beren intimitatea lotsarik gabe erakusten dute. Beren bizitzari eta beren buruari buruzko guztia erakusten dute. "Femeninoan hitz egin beharko litzake, askotan emakumeak baitira. Gizonak ere badaude, baina konturatzen nahiz gizonek beren buruari buruzko gutxiago erakusten dutela, gehiago erakusten dutela beren familiari edo inguruari buruz", zehaztu zuen Wacjman-ek.

Bere iritziz, aldaketa horren berrikuntza sakonena da gordin-gordinik erakusten diren irudiak probokaziorik gabe, nartzisismorik gabe, eta exhibizionismorik gabe erakusten direla. Arte garaikideak intimitatea ezabatu du. Artistek dirua irabazten duten beren mamu partikularrei esker. Artea edertasunaren eta sublimazioaren ideien haraindian kokatzen da, mamuen ondoan kokatzen da, badirudi guztiaren bueltan dagoela. "Ez dago misteriorik, artistak guztiz biluzik agertzen dira. Arteak, gaur egun, gorputza eta gorputzetik geratzen dena erakusten du", esan zuen amaitzeko.

Puntu horretan birsortzen da artearen eta psikoanaliaren arteko harremana, Gérard Wacjmanen iritziz. Psikoanalistaren kontsultara nagusiki hitz egitera joaten bagara ere, ez dago zalantzarik hizlarien gorputza ere jokoan sartzen dela. Dibana, arrazoiketa horren arabera, gorputza uzten duguneko aldagela dela esango genuke. Bertan bi gorputz uzten ditugu: gorputz aktiboa eta irudimenezkoa (geure buruari buruz dugun irudia). "Bi gorputz horiek utzi ondoren, hirugarren gorputza geratzen da. Gure zarpaila eta arrastaka daramatzagun pertsonak, hainbeste maite ditugunak", azaldu zuen. Dibanean etzatea hitzen bidez purifikatzea da.

Artean, jadanik, ez da intimitatetik ezer debekatzen. Irudi gordinak, sexualak, erotismorik gabekoak, erakusten ditu. Gérard Wacjmanen iritziz irudi intimo horiek ez dute ezer asaldatzen. "Badirudi egungo aro hau erotikotasunik gabeko aro bat dela, sexua zientzian sartu baita. Debeku-gabeziak, eta lege murriztailerik ez egoteak erotikotasuna desagerrarazi du. Une hauetan atea ireki egin da, eta atearen atzean lehendik bagenekiena aurkitu dugu: sekretuak ez duela sekreturik" adierazi zuen.

Freud-ek artea "zibilizazioaren ezinegonaren kontsolamendu" gisa ulertzen zuen. Artearen ikusmolde hori jadanik atzean geratu da. Ez du baliorik artea gizakiak munduaren minetik ihes egiteko asmatzen duena dela dioen ideiak. Museoek ez dute kontsolamendua eskaintzen, Gérard Wajcmanen iritziz gehiago dira angustia-guneak.

"Kulturaren eta museoaren eragin narkotiko onaz gozatu nahi badugu, batez ere ez dugu erakusketa-aretoetara sartu behar. Izan ere, erakusketa-areto batetara sartzen garenean, narkosia, mozkorkeria amaitu egiten da" azaldu zuen. Funtsezko aldaketa da, museo batetan sartzen garenean ezinegon batetatik ihes egiten ari garela, eta museoan sartzen garenean ezinegon hori artean bertan aurkitzen dugula. Lehen museoetara obren edertasunarekin kontsolatzeko asmoarekin joaten baginen, orain obra horiek gure miseriak erakusten dituzte. Hori da museoek gordetzen duten sorpresa: zibilizazioan dugun ezinegona erakusten dute.

"Zertarako joan museora orduan? Gure eguneroko miseriarekin topo egiteko? Zein onura ditu? Egiaren onura da", esan zuen Gérard Wajcmanek. Obrek gure intimitate zapuztua erakusten dute, obrarik gabe ezinezkoa da hori ikustea. Emozio estetikoak lekua utzi dio egiaren efektuari. Gérard Wajcmanen iritziz, artea edertasunetik bereizia badago edertasuna gaur egun leku guztietan dagoelako da. Guztiak ederra izan behar du, edertasuna munduko nagusi bilakatu da, nagusi tiraniko. Arte-museoak dira edertasunaren inbasio totalitariotik ihes egin ahal izateko leku bakoitza. "Ornamenturik gabeko arte garaikide hori, transposiziorik gabeko arte hori, jadanik ordezkatzeko ez duen arte hori, sublimaziorik gabeko arte hori, funtsean lehen filosofiak zuen funtzioa hartzen duen arte bat da; funtzio hori da mundua erakustea eta munduan pentsatzea", esan zuen hitzaldia amaitzeko.

CC

Testu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.